




**POLLOE HILERRIKO KAPERA
C MAILA**

POLLOE PLAZA 2-3-4



Egilea eta data: Jose de Goicoa, 1876-1877

Deskribapena

Escoriazak 1867an sinatutako estilo eklektikoko aurreko proiektu bat baldin badago ere, egungo hilerria Goicoak proiektatu zuen eta 1878an eraiki zuten. Sarrerako erdiko eraikina hiru elementutan zatituta dago. Erdialdean kapera gailentzen da alboan dituen behe oinaren eta lehen oinaren hegalekiko. Muturretan, barrutira sartzeko harlanduz gauzatutako bi ate daude, kale nagusien aurrez aurre. Harlangaitz hormaz eta harlanduz eraikitako konposizio simetrikoa, arbelezko estalkiez, estilo neogotikoaren arabera. Kaperaren alboko eta atzeko fatxadak entokatuta daude. Barrutiaren barne antolamendua kale ortogonalen bidezkoa da. Sarrera nagusiaren aurkako muturrean, beste sarrera portada bat dago. Estilo neoklasikokoa eta, ziurrenik, aurrekoa den ate bat dago multzoarekiko zut.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko eta harlangaitz hormazko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Polloe hilerria" E mailako multzoaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira jasodurak baimenduko.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.